

Sagardotegi gehienak itxita daudela hasi da sagardo garaia. Usurbilgo Aialde-Berri da irekita dauden bakanetako, baina ixteko arrisku handia du. Bezero gazteak ditu.

# Ohitura salbuespen

Jakes Goikoetxea Usurbil

**T**elefonoak jo du. «Ez, ez daukagu lekurik gaur eguerdirako; biharko bai», erantzun du Salome Portuk. Usurbilgo (Gipuzkoa) Aialde-Berri sagardotegiko leku guztiak hartuta daude larunbat eguerdirako. 110 lagunentzako lekua dute, baina gaur egun 56 har ditzakete gehienez. Zortzi edo bederatzita bazkaltiar sartzen diren mahai luzeetan lau laguntzako platerak, mahai tresnak eta edalontziak jarriak dituzte, batetik bestera tarte nabarmenarekin. Eta txarroak. Nahi dutenek kupeletatik betetzeko. Botilako edo txarroko sagardoa edan daiteke. Txarroa eskuan, «hau da COVID-19 garailo txotx berria», esanez ireki zitekeen aurtengo sagardo garaia.

**110 lagunentzako lekua dute, baina gaur egun 56 har ditzakete gehienez; zortzi lagunentzako mahaietan, lau**

Herenegun abiatu zen sagardo garaia, baina sagardotegi gehiago daude itxita, irekita baino. Itxita baitaude Astigarragoak eta Hernanikoak (Gipuzkoa), bi herriak eremu gorrian egoteagatik.

Usurbil ere eremu gorrian sartze da. Azken hamalau egunetan 100.000 biztanleko 491,44 ka-

su zituen herenegun, 500eko langa gaintzeaz. Aialde-Berriko as-teburu honetako bazkariak azkenak izan daitezke bolada batean. «Egunero begiratzen ditugu zenbakiak, eta hurrengo astean, ziurrenez, itxi egin beharko dugu», onartu du, etsipen apur batekin, Joxean Lazkanok.

Portu eta Lazkanok senar-emazteek gobernatzeko dute Usurbilgo Santuenea auzoko sagardotegia, iloba batzuen laguntzarekin. Familiako negozioia da.

## Herrikoak, «ezagunak»

Usurbildarrak izan behar dute bazkaltiar guztiak, eta hala izango dira, «ezagunak». Gazteak. Horretan aldaketa eragin du izurriteak: «Gazteak mugitzen ari dira. Gaur etorriko direnen batez beste adina 30 urte inguru izango da». Gazteak mugitzen diren sei-

nale, gazteen lau kuadrillak laugarren larunbata izango dute jarraian Aialde-Berri bazkaltzen. «50 urtetik gorakoak, ordea, desagertu egin dira», Lazkanoren esanetan. Beldurragatik, uste du.

Txotx garaietan baino ez dute zabalitzen, urtariletik maiatzera. Ostiral, larunbat eta igandeetako bazkariak ematen ari dira. Iazko itxialdia gogorra izan zen, sagardo garai bete-betean harrapatu zituelako eta, udan irekitzen ez du-


## ATZEKOZ AURRERA



Joxean Lazkanok, bakallaoa erretiluetan prestatzen. GORKA RUBIO/FOKU



Lau lagunek jan dezakete mahai bakoitzean. GORKA RUBIO/FOKU



Txotx berria: txarroan eta maskarekin. GORKA RUBIO/FOKU

tenez, itxialdia urtarilerara arte izatu zitzaielako. Aurten ohiko sagardo kantitatearen hiru laurdenean egun dute, badaezpada.

Lazkanok ez du iazko itxialdirik espero. Eskertuko luke mahaietan sei lagun elkartu ahal izatea: «Sekulako alde litzateke. Izan ere, afariak kenduta, lana erdira jaitsi digute, eta bazkarietan edukiera erdira jaitzita, laurdenarekin ari gara lanean».

Portuk prest ditu tortillak egiteko arrautzak. Prest bakallao frijitua eta piperrak, mikrouhin labean berotu eta mahairatzeko. Lazkanok tontortua du ikatza, eta parrilaren ondoan daude txuletak bilduta, epeltzeko.

Garbiñe, Imanol eta Aitor Zubimendi ilobak ere iritsi dira, lagunentzako. Aitor, amak errendako erroskillekin, egin berriak, oraindik epel, kafearekin banatzeko.

## Txotxa faltan

14:00etan iritsi dira lehen bezeroak. Javi, Josu, Xabi eta Inigo usurbildarrak: «Aspalditik esaten genion elkarriz bazkaria egin behar genuela, eta azkenean gaur eguneko dugu». «Pena» dute, txotxak egin ezin delako. Txarroko sagardoa probatuko badute ere, nahigodute botilakoa.

Sukaldean berotu dute bakallao frijitua. Portuk irabiatu du zortzi arrautz, gehitu dizkie bakallaoa, tipula gorritua, gatza eta perrexila, eta bota du zartaginean. Urteetako eskarmentuarekin nahastu eta irailu du erretilura.

Lazkanok ile lehorgailuarekin sua bizitzen hasi da. Minutu gutxi indartu da sua, eta lehen txuletak jarri ditu.

Bezero gehiago iritsi dira. Sekulatik zarata entzuten da, izurriterik gabeko garaietako sagardotegia dirudi. Bezeroek, ordea, eskuak gel hidroalkoholikoekin garbitzen dituzte. Lau laguneko mahaietan elkartzen dira, maskara janzten eta erantzuten dute, eta ezin dute txotx egin.